



**2016KO IRAILAREN 27KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko irailaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpian, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barrantiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Ioseba Hernandez Madinabeitia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabele Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTAK.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2016ko uztailaren 19an egindako ohiko eta abuztuaren 30ean egindako ezohiko bilkurretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen horien zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- KIROL ZERBITZUEN KONTRATUAREN LUZAPENA.-**

Udal honek Juan Ignacio Moyua Ayalarekin izenpetu zuen 2013ko irailaren 30ean Kirol Zerbitzuak emateko kontratua. Kontratu honen epea 2 urtekoa zen eta luzagarria da urte beteko bi luzapenen bidez.

Iaz kontratua urte betez luzatzea onartu zen.

Orain Kirol eta gazteriako udal teknikariak bigarren luzapenaren aldeko txostena egin du.

Hau honela kontratu hau beste urte betez luzatzeko proposamena egiten da.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoarekin kontratuaren luzapena onartu egiten du.

**IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-**



Alkateak adierazten du 2016ko abuztuaren 2an utzi zuela Eusko Legebiltzarreko jarduna eta hango kargua uzteagatik bi hilabeteko kalteordaina kontuan izanda, 2016ko urriaren 2an egingo duela alta gizarte segurantzaz Lazkaoko Udalaren udal kargu gisa.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

